



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

DONOSTIARRA
2040

TOP
era

00/

**ZAINTZEN DUEN HIRIA
ETA BELAUNALDIEN
ARTEKOA**

**Dokumentu honen prestaketan, Donostiako Udaleko
Gizarte Ekintzaren Zuzendaritzak eta PKF Attesteko
taldeak parte hartu dute.**

1. Sarrera.....	4
1.1. Donostia 2040	4
1.2. Dokumentuaren helburuak	4
1.3. Zaintzak	5
2. Zaintza ulertzeko moduen eraldaketa	6
2.1. Zer dira Zaintzak?	6
2.2. Zaintzen bilakaera.....	6
3. Zaintzen eraldaketarako palankak.....	9
3.1. Pertsonalizazioa.....	9
3.2. Koordinazioa.....	9
3.3. Komunitatea.....	9
3.4. Prebentzioa.....	9
3.5. Jasangarritasuna	10
4. Etorkizunerako begira	11
4.1. Egungo egoera demografikoa.....	11
4.2. 2040ra begirako proiektzio demografikoak	12
4.3. Kolektiboen beharrak.....	13
5. Testuingurua Donostian	16
5.1. Donostiako Gizarte ekintza	16
5.2. Donostia Lagunkoia.....	17
5.3. Erlauntzak.....	18
5.4. Lkaleak	18
5.5. Zaintzak Gertu	19
6. Ondorio nagusiak	20

1.1. Donostia 2040

Donostiako Udalak hiri ko-sorkuntza eta ko-diseinu prozesu berri bat jarri du martxan, 2040. urtera begira, hiriak dituen egiturazko erronkak identifikatu eta, gaurtik hasita, horiei modu egoki eta eraginkorrean aurre egiteko.

Ez da prozesu sinplea, etorkizuna aurreikustea geroz eta konplexuagoa baita. Horregatik, ikuspegi partekatu bat osatu nahi dugu hiriko hainbat eragilarekin, etorkizunean zer nolako Donostia nahi dugun elkarrekin adostu, erronkak, aukerak eta mehatxuak identifikatu eta hiriak egin behar dituen apustu estrategikoak elkarrekin erabakitzeko.

Prozesu honetarako arlo tematikotan espezializatutako taldeak osatu ditugu. Talde bakoitzak 20 pertsona inguru izango ditu eta eragile mota ezberdinez osatuta egongo dira, begirada anitzak eta esperientzia osagarriak izango ditugula bermatzeko. Honako banaketa hau aurreikusten da: %40 gizarte zibil eta ekosistemako partaideak, %30 komunitateko adituak, %20 profil emergenteak eta %10 udal profilak edo profil publikoak.

Etorkizuneko Donostia irudikatu eta lantzeko aukeratu diren gaiak ondorengoak dira:

1. Auzo aktiboetan etxebizitza
2. Gertuko hiria eta azpiegiturak
3. Ekonomia sendoa eta berritzailea
4. Zaintzen duen hiria eta belaunaldi artekoa
5. Kohesio soziala eta elkarbizitza segurua
6. Kultura, identitatea eta posizionamendu internazionala
7. Erakunde fidagarriak eta aliantza estrategikoak

1.2. Dokumentuaren helburuak

Dokumentu honetan, **Zaintzen duen hiria eta belaunaldi artekoa** taldeak egin beharreko lanketarako hainbat ideia eta hasierako hausnarketa jasotzen dira, elkarriak ireki baterako abiapuntu gisa erabiltzeko.

Prozesu honetan, etorkizuneko Donostiako nolako zaintzak nahi ditugun zehazteaz gain, hausnarketa bikoitza sustatu nahi dugu:

- Zer egin behar du Donostiako udalak zaintzak hobetzeko?
- Zer egin lezakete gizarteko gainerako eragileek (familiek, komunitateak, erakundeek...) Donostiako udalarekin elkarlanean zaintzak hobetzeko?

Izan ere, Donostiako Udalean argi dugu guk bakarrik ezin diegula aurre egin etorkizuneko erronkei; ezin izateaz gain, ez diegu bakarrik heldu nahi erronka horiei. Ezberdinen arteko lankidetzan sinisten dugu eta bidea hori dela argi dugu.

1.3. Zaintzak

Zaintzak pertsonen ongizaterako eta komunitateen gizarte-kohesiorako funtsezko zutabeetako bat dira. Pertsona guztiok zaintzak behar ditugu gure bizitzako une desberdinetan: haurtzaroan, gaixotasun-, desgaitasun-, mendekotasun- eta gizarte-kalteberatasun-egoeretan, edo, besterik gabe, gure bizi-kalitateari eta ongizate emozionalari eusteko.

Ez dezagun ahaztu pertsonak gizartearen parte garen neurrian komunitatean garatzen dugula gure bizitza.

Pertsona guztiok gara interdependenteak. Gure bizitzan zehar zainketak jaso behar ditugu; baita eskaini ere. Zentzu honetan, zaintzak ez dira mendekotasunari soilik lotutako salbuespenezko errealitatea, giza izaerari atxikitako dimentsioa baizik.

Hala ere, zaintzak premia unibertsala diren arren, zaintzari lotutako erantzukizunak antolatze eta banatzeko modua nabarmen aldatu da denboran zehar. Gaur egun, demografia-, gizarte- eta familia-eraldaketek erronka berriak dakartzate, eta etorkizunean ingurukoak nola zaindu eta norberak nola zaindua izan nahi duen irudikatzeko hausnarketa kolektiboa beharrezkoa da.

Hamarkada askotan gure gizarteak enpleguaren, ekoizpenaren eta hazkunde ekonomikoaren inguruan antolatu dira. Hala ere, aldaketa demografiko eta sozialen ondorioz, zaintzak politika publikoen eta bizitza komunitarioaren erdigunean jarri behar dira. Erronka ez da soilik beharrei erantzutea, baizik eta pertsonen interdependentzia eta zaintzeko eta zaindua izateko balioa aitortuko duen gizartea eraikitzea.

Aitzitik, zaintzei buruzko eztabaidak gizarte edo osasun-zerbitzuen eremua gainditzen du, eta ondorioz ezinbestekoa zaigu datozen hamarkadetarako eraiki nahi dugun hiri, komunitate- eta bizikidetz-ereduari buruzko hausnarketa egitea.

Zaintza ulertzeko moduen eraldaketa

2.1. Zer dira Zaintzak?

ONU Mujeres erakundearen arabera, "Zaintzak egunez egun pertsonen ongizate fisiko eta emozionala birsortzea ahalbidetzen duten jarduerak dira".

Lanaren Nazioarte Erakundeak (OTI) ere, antzerakoa dio: "Zaintza-lanak bizi-kalitatea mantentzen duten jarduerak eta harremanek osatzen dituzte. Zaintza-lanek bizitzako etapa guztietan (haurrak, gazteak, helduak, adinekoak, ezinduak eta zaintzaileak barne) sortzen diren behar fisiko, psikologiko, kognitibo eta osasun mentaleko eta garapeneko beharrei ematen diete erantzuna.

Beraz, esan genezake, zaintzak pertsonen ongizatea, autonomia, osasuna, parte-hartze soziala eta duintasuna bizi-ziklo osoan bermatzera bideratutako jarduera, harreman, laguntza eta baliabideen multzoa direla; eta zainketen barruan sartzen direla bai **dimentsio materialak eta praktikoak** (elikadura, higieena, mugikortasuna, laguntza edo etxeko laguntza) eta baita **dimentsio emozionalak eta erlazionalak** ere (entzutea, afektua, laguntza psikologikoa, gizarte-laguntza edo loturak sortzea).

Bi erakundeek, zaintzak behar dituzten pertsonen gain, zainketak ematen dituzten pertsonen zaintzaren garrantzia ere azpimarratzen dute.


2.2. Zaintzen bilakaera

Hamarkadetan zehar, zaintza etxeko eremuan konpondu beharreko betebeharrak pribatua izan da. Eredu hori familia-egitura zabaletan, etxekoen unitateen barruan zaintzaile gehiago izatean eta genero-rolen banaketa tradizionalen oinarritzen zen. Hori horrela, nagusiki familietako emakumezkoa izan dira zaintzak bere gain hartu izan dituztenak.

Hala ere, hainbat aldaketa sozialek errealitate hori eraldatu egin dute:

- Biztanleriaren zahartzea.
- Bizi-itxaropena handitzea.
- Familien tamaina murriztea.
- Emakumeak lan-merkatuan masiboki sartzea.
- Pertsona bakarreko etxekoen unitateen hazkundea.
- Familien mugikortasun geografiko handiagoa.
- Mendekotasun- eta kronikotasun-egoerak areagotzea.

Egoera honen aurrean, familiek zaintza-lanak bakarrik egiteko duten gaitasuna murriztu egin da, eta laguntza-premiekin, berriz, gora egin dute. Hori horrela izanik, zaintzak eremu pribatutik haratago zabaldu dira eta, egun, zaintza sistema edo antolaketa hitz egiterakoan, Shihra Razaviren zaintza diamentez hitz egiten da. Jasangarria eta onargarria ez den eredu tradizionalaren aurrean proposatutako irtenbide hau ardura, gastu eta lidergotza sozial-publikoan oinarritzen da; erdigunean zaintza behar duen pertsona kokatzen du eta, inguruan, zaintzan parte-hartzen duten eragile ezberdinak: familia, administrazioa, komunitatea eta merkatua.



Eredu honen baitan, lau eragile horien arteko elkarreraginean oinarrituriko sistema gisa ulertzen dira zaintzak; horrek ez du esan nahi eragile guztiek pisu bera izango dutenik, aitzitik, gizarte bakoitzak eragile batean edo bestean kokatzen du pisu gehiago eta banaketa horren baitan eraikitzen du bere sistema. Gure kasuan, aipatu den moduan:

- Orain arte familiek pisu asko/gehiegia izan dute zaintza lanetan eta gaur egun ezinezkoa da horrela jarraitzea.
- Horren aurrean, administrazioak gizarte-ongizatearen pisua bere gain hartu du. Horren adierazgarri dira besteak beste, zaintzak mendekotasun egoeran dauden hiritarren eskubide subjektibo gisa aitortu izana (Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun -egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko 39/2006 legea), edota zainketak eta gizarte - zerbitzuak herritar guztien eskubide subjektibo unibertsal gisa aitortzea (12/2008 Euskadiko Gizarte Zerbitzuei buruzko legea).
- Alabaina, gaur egungo beharrak ikusirik, familiek eta administrazioak beren kabuz ezin diote behar guztiei erantzun. Horregatik, zaintza publiko-komunitarioaz eta PPPaz (*Public -Private Partnership*) hitz egiten da.

Edozein kasutan, zaintzek eremu pribatutik publikora salto egin badute ere, oraindik orain datuek erakusten dute arlo pribatuan emakumeak direla zaintza- eta kontziliazio-lanetan denbora gehiago ematen dutenak. Ildo beretik, arlo profesionala ere feminizatua dagoela agerikoa da eta sektorearen egoera ere ez da erakargarriena (lan baldintza egokiak izateko zailtasunak, profesionalizazio falta...). Horrek guztiak ondorio garrantzitsuak ditu emakumezkoentzat:

- Lan-partaidetza txikiagoa.
- Ibilbide profesional etenak.
- Diru-sarrera eta pentsio txikiagoak.
- Gaiak fisiko eta emozional handiagoak.
- Pobrezia-arrisku handiagoa bizitzako etapa jakin batzuetan.

Zaintzan genero-ikuspegia txertatzean, besteak beste, honako hauek landu beharko lirateke:

- Zaintzaileen balio soziala eta ekonomikoa aitortzea.
- Zaintzaileen lana ikusaraztea.
- Gizonen eta emakumeen arteko erantzunkidetasuna sustatzea.
- Zaintzaileentzako laguntza nahikoa bermatzea.
- Zaintzaileen lana profesionalizatzea
- Lana eta familia uztartzen laguntzea.
- Genero-desberdintasunak murriztuko dituzten politika publikoak diseinatzea.

Hiri zaintzaileak berdintasunarekin konprometitutako hiria ere izan behar du.

Zaintzen eraldaketarako palankak

3.

Zaintzaren inguruko eraldaketa ez da joera edo elementu gutxi batzuetan oinarritzen; aitzitik paradigma aldaketa bat da eta funtsezko palanka edo oinarri hauek jorratzen ditu:

3.1. Pertsonalizazioa

Pertsona eskubide, erabaki eta lehentasunen subjektu aktibo gisa kokatzen du, eta laguntzak eta zerbitzuak bere behar, gaitasun eta balioetara egokitzen ditu. Helburua da eredu estandarizatuak gainditzea, entzute aktiboa, autonomia eta plan pertsonalizatuak sustatuz, baliabideak modu malguan egokituta.

3.2. Koordinazioa

Sistema desberdinen arteko lankidetzak sustatzen du (gizarte, osasun, etab.), arreta integral eta jarraitua bermatzeko. Helburua da eraginkortasuna handitzea eta hutsuneak edo bikoiztasunak saihestea, protokolo, tresna partekatu eta plan pertsonalizatuen bidez.

3.3. Komunitatea

Komunitateko laguntza-sareak aktibatu eta indartzea du helburu, pertsonen parte-hartzea sustatu eta isolamendua prebenitzeko. Zaintza profesionala, familiakoa eta komunitarioa uztartzen ditu, erantzukizun partekatua bultzatuz, eta ekimenak garatzen ditu (auzo-sareak, boluntarioria, zaintzaileentzako laguntza, etab.).

3.4. Prebentzioa

Prebentzio ikuspuntua ezinbestekoa da zaintzaren barruan. Berebiziko garrantzia du eskuhartzea egoera zurgarriak larriagotu edo kronifikatu aurretik egiteak. Hori horrela izanik, arretari ikuspegi erreaktiboa eman beharrean ikuspegi aurre-hartzaile eta prebentiboa ematen dio, eta honako hauek lehenesten ditu: detekzio goiztiarra, ongizatearen sustapena, gaitasun pertsonal eta komunitarioen indartzea, eta esku-hartze zuzen, arin eta proportzionatuak. Aurrea hartzeak aukera ematen du modu ez hain inbaditzailean eta era efizienteagoan esku hartzeko.

9


3.5. Jasangarritasuna

Egungo eta, batez ere, etorkizuneko beharrei aurre egiteko definituko dugun zaintza ereduaren helburua argia da: bizi kalitatea hobetzea. Era berean, ordea, ez dugu ahaztu behar jasangarria ere izan behar duela; jasangarria familientzat, jasangarri komunitatearentzat, jasangarria merkatuarentzat eta jasangarria, baita, administrazioarentzat ere. Pertsonalizazioa, koordinazioa, komunitatea eta prebentzioa lantzeak arlo edo zerbitzu batzuen intentsitatea eta kosteak arindu egingo ditu, baina beste batzuetan berriz handitu egingo dira. Eredu berria jasangarria eta egokia izatea nahi badugu, jasangarritasunari ere erreparatu beharko zaio eta, nolabait, kostu-onura analisiak egin beharko dira: zer ari gara lortzen eta ze kostu izan du lorpen horrek; beti ere, aipatu den moduan, proiektu edo zerbitzuen ikuspegi konkretua (mikroa) eta sistema osoaren ikuspegi sistemiko edo integrala (makroa) uztartuz.

4.1. Egungo egoera demografikoa

Donostiako joera demografikoaren ezaugarri nagusiak honako hauek dira:

- Jaiotza tasaren beherakadak eta bizi itxaropenaren luzapenak zahartze progresiboa eragin dute; horren ondorioz, hazkunde begetatiboa negatiboa bihurtu da (-974 pertsona 2025ean);
- Atzeritar kopurua hazi egin da
- Biztanleria osoak egonkortasuna edo goranzko joera izan badu, immigrazioagatik izan da.
- Donostian jaiotako eta atzeritik etorritako pertsonen adin-banaketa guztiz desberdina da, hurrengo grafikan ikus daitekeen bezala:
 - Donostiako biztanleria nahiko uniformeki banatuta dago pisu gehien duen adin tarteak %8-koa izanik gehienez.
 - Atzeritarren kasuan, ikus daiteke biztanleriaren zati nagusia 20 urtetik 50 urtekoa dela.



Honen aurrean bi irakurketa nagusi:

- Bizi-itxaropena hazi bada ere, funtsezkoa da bereiztea zenbat urte bizi garen eta zenbat urte bizitzen ditugun osasun onean edo desgaitasunik gabe. Zentzu honetan, erronka nagusietako bat ez da soilik gehiago bizitzea (bizi kantitatea), baizik eta urte horiek baldintza egokietan bizitzea (bizi kalitatea).
- Immigrazio hutsak ez du zahartze prozesua gelditzen, haren erritmoa moteldu baizik. Jaiotza tasaren beherakadak jarraitzen duen bitartean, eta belaunaldi gazteen tamaina berreskuratzen ez den heinean, biztanleriaren egiturak zahartzen jarraituko du.

4.2. 2040ra begirako proiektzio demografikoak

Donostiako udaleko informazio/analisi unitateko datuen arabera egindako proiektzioak kontuan harturik, honako ideia hauek azpimarratu daitezke:

- **Zahartzea eta hilkortasuna:** Bizi-itxaropenak gora egiten jarraituko du, batez ere emakumeen kasuan. Horren ondorioz, 80 urtetik gorako biztanleria nabarmen handituko da.
- **Jaiotza-tasa:** Jaiotza-tasa ‰ 5,7 inguruan dago, eta balio baxuetan mantenduko da. Jaiotza kopuru absolutua pixkanaka murriztea aurreikusten da, eta horrek populazio-piramidearen oinarria estutuko du.
- **Biztanleria atzerritarra:** Atzerrian jaiotako biztanleria 2010ean ‰ 8,8 izatetik (16.412 pertsona) 2025ean ‰ 16,5 izatera igaro da (31.438 pertsona). Joera hori mantenduz gero, 2040an ‰ 25 eta ‰ 30 artekoa izan daiteke, eta funtsezkoa da biztanleria osoari eusteko.
- **Migrazioa:** Migrazio-saldoa izango da hazkunde-faktore nagusia, urtean -1.000 biztanle inguruko saldo begetatibo negatiboa konpentsatuz.
- **Adinaren arabera egitura:** Aurreikuspenen arabera, 65 urtetik gorako biztanleria ‰ 32-35era igoko da, biztanleria gaztea murriztuko da eta biztanleria aktiboa ere apur bat murriztuko da.

Ondorio gisa:

Aurreikusitako bilakaera demografikoak **sendotu** egiten du **egiturazko zahartzea**, jaiotza-tasa txikia eta saldo begetatibo negatibo iraunkorra ezaugarri dituen eredua. Testuinguru horretan, biztanleria-bolumenaren **iraunkortasuna hiriak biztanleria erakartzeko eta finkatzeko duen gaitasunaren arabera** izango da funtsean, eta migrazio-saldoa izango da oreka demografikoaren faktore nagusia.

Prozesu horrek, gainera, hiriaren osaera soziala pixkanaka aldatzea dakar. Atzerrian jaiotako biztanleriaren hazkundeak, biztanleriaren galera naturala konpentsatzeaz gain, **aniztasun demografiko, kultural eta sozial handiagoa** dakar, eta hiri-eredu pluralagoa eratzen du.

Biztanleria **migratzailearen presentzia** gero eta handiagoa izateak, batez ere adin aktiboetan, egitura demografikoa partzialki gaztetzen, lan-merkatuari eusten eta mendeko biztanleriaren eta biztanleria aktiboaren arteko harremana orekatzen laguntzen du. Aldi berean, fenomeno horrek erronka berriak planteatzen ditu integrazioari, gizarte-kohesioari, etxebizitza eskuratzeko aukerari eta zerbitzu publikoen egokitzapenari dagokienez.

Ondorioz, Donostiak etorkizunean izango duen bilakaera ez da soilik barneko dinamika demografikoen arabera izango, baita gero eta handiagoa den populazio-nahaste hori modu egokian kudeatzeko duen gaitasunaren arabera ere, gizarte-kohesioa indartuko duten integrazio- eta bizikidetzaprozesuak erraztuz.

Azken batean, Donostia eredu demografiko baterantz doa, non zahartzea eta aniztasuna batera biziko diren, eta oreka horren kudeaketa egokia da datozen hamarkadetan hiriarentzat erronka estrategiko nagusietako bat.

4.3. Kolektiboen beharrak

Zaintzez ari garenean presente izan behar dugu ez garela, soilik, adineko edota mendekotasun egoeran dauden pertsonen ari. Hori horrela, komenigarria iruditu zaigu gure gizartean dauden kolektibo eta beharren inguruko hausnarketa txiki bat egitea:

- **Adineko pertsonen mendekotasuna, autonomia eta bizitza osoa:** Esparru horretan, funtsezkoa da adineko pertsonen ahalik eta autonomia, ongizate eta erabakitze gaitasun handiena izan dezaten jarduerak sustatzea. Mendekotasunaren prebentzioaz harago, ikuspegi funtzional hutsetik, helburua bizitza osoa bultzatzera bideratu behar da, hau da, pertsonak bere bizi-proiektua garatu ahal izatea, bere lehentasunen, balioen eta gaitasunen arabera. Ildo horretan, Osasunaren Mundu Erakundeak jarduera fisikoa, estimulazio kognitiboa eta zahartze osasungarria sustatzeko programak bultzatzea gomendatzen du (World Health Organization, 2017). Jarduera horien artean egon daitezke mugikortasun-, indar- eta oreka-arietak, fisioterapia, memoria estimulatzeko jarduerak eta gaitasun fisikoak eta kognitiboak mantentzera bideratutako beste ekimen batzuk. Hala ere, azken helburua kontserbazio funtzionala gainditzea da, eta pertsonen komunitatean parte hartzen jarrai dezaten, harreman esanguratsuak izan ditzaten, autodeterminazioa gauza dezaten eta bizi-kalitate ona izan dezaten laguntzea. Ikuspegi horretatik, autonomia pertsonala, parte-hartze soziala, ongizate emozionala eta bizi-asmoaren zentzua indartzen laguntzen duen ekintzak bultzatu behar dira zahartzaroan bizitza osoa sustatzeko.
- **Bakardade ez hautatua:** bakardadeaz baino, bakardadeez, pluralean hitz egin behar da halako kasuetan; izan ere, bakardadea ez da esperientzia bakarra eta unibertuala; berez, bakardadearen alderdi eta dimentsio ugari daude eta baita bakardade mota asko ere. Ez da, nahitaez, bakarrik bizi diren pertsonetara mugatzen eta bakarrik bizi diren pertsonen ez dute, nahitaez, bakardade edo bakardade ez hautatuaren sentipenik izan beharrik. Ebidentzia zientifikoak ez du modu eztabaidaezinean ondorioztatzen lotura zuzena dagoenik, per se, adinaren eta bakardadearen prebalentziaren artean, baina bakardadearekin lotutako zenbait aldagai sarriago agertzen dira adinekoen artean. Beste era batera esanda, bizitzaren etapa horietan maizago gertatzen dira, batera, bakardade sentimenduak sor ditzaketen zenbait egoera. Hautatua ez den bakardadeari aurre egiteko estrategia moduan, bakardade egoeren aurrean (egoera horiek aukeratzeko, gogobetegarriago egiteko, ekiditeko edo prebenitzeko), gaitasun eta baliabide pertsonal gehiago izatea sustatu, lotura afektibo, sozial eta komunitario esanguratsuak landu eta partaidetza eta gizarte lotura maila handiagoak bultzatu behar dira.
- **Ongizate emozionala:** Osasunaren munduko erakundearen arabera, zazpi gaztetatik batek nahasmen mentalak pairatzen ditu 10-19 urteko tartean eta depresioa edo antsietatea dira arrazoirik nagusienak. Datu hauek arazoa larria eta estrukturala dela nabarmentzen dute, ez ordea, puntuala. Hainbat ikerketek topatutako emaitzek diote arazo honen jatorria deskonexio sozialari lotuta dagoela; bakardadeak eragin handia du gazteen ongizatean. Gaur egun bizi duten testuinguruak sentazio hori naturalki indartzea eragiten du prekarietatea, sare sozialen presioa eta erlazio egonkorak sortzeko zailtasunaren ondorioz.

- **Haur eta nerabeen arrisku egoerak:** Kolektibo honen arazo nagusietako bat arriskuen identifikazioan datza. Haur eta nerabeek ez dute laguntza eskatzeko gaitasun edo kontzientziarik, beraz, zaurgarritasun edo eta babesgabetasun egoerak garatuta daudenean hautematen dira gehienetan. Horregatik, UNHCR bezalako erakundeek detekzio goiztiarreko erremintak definitu dituzte bai eta gazteei mentoretza sozio-emozionala eskaintzeko programak ere. Entzunak sentiarazteko gune seguruak, gazteen arazoei arreta emateko linea anonimoak, psikologia zerbitzua edo autoezagutza eta emozioen kudeaketarako tailerrak besteak beste.
- **Gizarte bazterkeria:** Arlo honi kategoría askotako ekintzak dagozkio. Horien artean babes soziala eta ongizate estatuaren bermea dago eta honako baliabideak eskaini litezke orokorrean: osasun publikoaren irismena, gizarte langileen zerbitzu eskaintza, kolektibo hauen bizitza estiloaren hobekuntza sustatzeko programak, osasun mentala lantzeko neurriak eta baliabideak... Migrazio ez erregularri lotutako etxegabetasuna eta muturreko bazterkeria nabari hazten ari den fenomeno da eta egoera honek erakunde eta babes sistema ezberdinen arteko lankidetzak eta politika amankomunak garatzea eskatzen du.
- **Genero indarkeria jasaten duten emakumeak:** Babesa eta ahalduntzea dira kasu honetan landu nahi diren arlo nagusiak. Zaintza prozesua luzea izaten da, askotan traumak edota pertsona moduan dituzten nahi eta aspirazioen deuseztapen egoerak bizi dituztelako. Kasu horietan zaintza eta tratamendurako gehien errepikatzen den patroia ondorengo lanketan jasotzen da eta fase nagusi hauek jarraitzen ditu. Hasierako uneetan arreta gune segurua eskaintzea garrantzitsua da biktimak babesa, konfidentzialtasuna eta segurtasuna sentitu ditzan. Honen ostean, bakarrik ez dagoela sentiarazteko, arreta psikosozial eta juridikoarekin jarraitu beharko litzake autoestimua, babes emozionala eta laguntza ekonomiko eta eskubide juridikoetarako sarbidea ahalbidetuz. Aurrerago ahalduntze taldeetara bideratzea gomendatzen da.
- **Migrazioa:** demografia aztertu den atalean aipatu den moduan, immigrazioak paper garrantzitsua dauka eta izango du gure gizartean. Jatorri, ohitura, kultura, sinesmen edota balore ezberdineko pertsonen arteko bizikidetzak egokia izan dadin, kulturarteko bitartekaritza da palanka nagusia: familien ohituren ezagutza eta ibilbide baten diseinua, hizkuntza klaseak, lanbide programak edota askotariko arrazen arteko elkarbizitza indartzen duten komunitateko ekintzak, besteak beste. Horretaz gain, pertsona hauek gure gizartean behar bezala bizitzeko aukera izan dezaten, administrazio publikoekin bete beharreko tramiteen inguruko informazioa eta laguntza ere garrantzitsuak dira.
- **Kasu konplexuak:** Zaintza sarea dependentzia egoeran dauden adineko pertsonengan zentratuta egon da orain arte. Begirada hau zabaltzea da erakunde publikoek beren planetan identifikatutako joera nagusia. Bertan aipamena egiten zale etxerik gabeko pertsonen, haurtzaro babestuei, arazo mental larriak dituzten pertsonen edota bazterkeria egoera nabarmenean dauden kolektiboek. OECD erakundeak “complex needs” terminoa definitu zuen gaur egungo arazo sozial larriari izena jartzeko. Egoera hauek ere arreta integrala eta askotariko baliabideen eskuragarritasuna behar dute. Horregatik, zerbitzuen integrazio matriziala erabilgarria izan daiteke honi aurre egiteko. Funtsean, zerbitzuek horizontalki naiz

bertikalki erantzun bateratua eman behar dute. Horizontaltasunari dagokionez, sektore desberdinen arteko esku hartzeari deritzo. Bertikaltasuna, aldiz, gobernantza mailen arteko integrazioan datza (udalak, aldundiak, erkidegoa, estatua etab.). Eszenatoki honetan kasuen kudeaketaren metodologia aplikatzea iradokitzen da, plan indibidualizatu eta pertsonalizatuak garatzeko. (OECD, 2024).

Testuingurua Donostian

Donostiak zaintzari dagokionez udal ibilbide zabala du. Hogei urte baino gehiagoz, udaleko hainbat arlotatik sustatutako proiektu, zerbitzu edota ekintzak egin dira. Egun, zaintza udal-ekintzaren esparru ugarian dago (gizarte-ekintza, osasuna, hezkuntza, kultura edo berdintasuna, kirola, hirigintza, etxebizitza, mugikortasuna, segurtasuna edo eta prebentzio, su itzalketa eta salbamendua), eta askotariko kolektiboek zuzenduta dago, batez ere adinekoei eta haurrei, pixkanaka herritar guztietara hedatuz. Hala ere, presentzia horrek oraindik ez dio erantzuten eredu komun bati edo estrategia global partekatu bati. Zaintza balio publiko zentral gisa aitortzen duen, koherentzia ematen dion eta politika eta zerbitzu guztietan sistematikoki eta zeharka integratzen duen udal esparrua sustatu beharra dago. Egoera horren jakitun, 2023an Donostiako Udalak barne hausnarketa kolaboratiboko prozesu bat bultzatu zuen, abiapuntua aztertzeke, indarguneak eta mugak identifikatzeko, eta zaintzaz zer ulertzen den eta udal jardunean nola txertatu definitzeko.

Edozein kasutan, hirian errotutako zaintza kulturaren presentzia eta talde profesionalen eta erakundearen konpromiso iraunkorra ukaezina da. Honen adierazgarri dira, besteak beste, Donostiako **Gizarte ekintza bera, Donostia Lagunkoia, Erlauntzak, Lkaleak, edo Zaintzak Gertu.**

5.1. Donostiako Gizarte ekintza

16

Donostiako Gizarte ekintza udalerriko herritar guztiei zuzendua dagoen zerbitzua da eta berariaz lan egiten dugu bizi-proiektua modu autonomoan garatu eta gizartean parte hartzeko zailtasunak dituzten pertsonekin. Gure egitekoak honela zerrendatu daitezke:

Donostiako Udaleko Gizarte Ekintzako Zuzendaritzaren funtsezko eginkizuna da herritar guztiek legeriak aitortutako gizarte-eskubideak erabat balia ditzaten laguntzea, laguntza profesionalaren bidez eta, hala badagokio, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren gizarte-zerbitzu, prestazio eta baliabideak eskuratuz.

Zehazki, gizartean pertsonen bizitzaren garapenean eragiten duten 4 arlo handitan esku hartzen du Gizarte Ekintzako Zuzendaritzak:

- **Biziraupena / Segurtasuna.** Oinarrizko premiak eta osotasun fisiko eta psikikoa betetzea.
- **Autonomia / mendekotasuna.** Eguneroko bizitzako jarduerak egiteko zailtasunak dituzten pertsonen laguntza.
- **Babesa / babesgabetasuna.** Adingabeen nahiz ezgaituen gurasoek edo tutoreek guraso-funtzioa eta tutoretza edo guraso-ahala behar bezala betetzea sustatzen etaosatzen du.
- **Gizarteratzea / baztertea.** Pertsonen laguntza, batez ere zailtasun bereziak dituztenei, garapen pertsonaleko eta bizitza komunitarioan integratzeko prozesu bat aurrera eraman dezaten.

Gauzatzen dituzten ekintzak honako hauek dira: Prebentziozkoak, sustapenekoak, babestekoak, osagarriak, kalteak murriztekoak eta aringarriak.

5.2. Donostia Lagunkoia

Donostia Lagunkoia Udalak bultzatutako Hiri Plana da, eta biztanleriaren zahartzeak hiri bizitzaren esparru guztietan planteatzen dituen erronketan jartzen du arreta. Bide honetan, proiektuak eta jarduerak biltzen ditu hiria lagunkoiagoa egiteko eta, horrela, adinekoen eta Donostiako gizarte osoaren bizi kalitatea hobetzeko.

Plan honen bidez, helburu hauek bilatzen ditu:

- Adineko pertsonak eta haien elkarteak ahalduntzea, eta komunitatean beren parte hartzea bultzatzea.
- Adin desberdinetako pertsonak parte hartzeko prozesuetan inplikatzeko, belaunaldien arteko harremanak eta ezagutzen transmisioa sustatuz.
- Zahartzearen balio sozialaz sentsibilizatzea eta gero eta konplexuagoa eta zalantzazkoagoa den errealitate baten aurrean irtenbideak bilatzeko adinekoek duten zeregin aktiboa aitortzea.

Ekimen honek 4 ardatz ditu:

- 1. Gune publikoa eta mugikortasuna:** Pertsona guztiona den eta elkarrekintza sustatzen duen ondasun gisa, espazio publikoek malguak, askotarikoak, irisgarriak eta seguruak izan behar dute. Biztanleriarekin eboluzionatzen duen eta harremanak eta komunitatea sortzen laguntzen duen sistema baten parte dira.
- 2. Bizitza osorako etxebizitza:** Bizitzeko modu desberdinetara egokitzen diren eta etxean zahartzeko aukera ematen duten etxebizitzak:
 - Irisgarritasuna bermatzeko hobekuntzak
 - Araudiak egokitzea
 - Finantzaketa-tresna berriak
 - Eskura dauden baliabideak ezagutzeko laguntza
- 3. Zaintzen duen komunitatea:** Bakardadea, isolamendua, gaixotasuna, hauskortasuna edo energia falta bezalako errealitateak agertzen direnean laguntza eta arreta eskainiko duten sare komunitarioak sustatzea.
- 4. Bizi-ziklo berria eta adinaren kudeaketa:** Modu berriak daude zahartzaroa ulertzeko eta jarduteko, ondo zahartzeko plangintza egiteko, adin desberdinetako pertsonen arteko harremanak zaintzeko, lanean zahartzeari laguntzeko, belaunaldi berriak prestatzeko eta dakiguna partekatzeko.

5.3. Erlauntzak

Erlauntzak Donostiako auzoetan garatzen den ekimena da, zaintza ikuspegi komunitario batetik abiatuta, pertsonen bizi-kalitatea mantendu edo hobetzea helburu duena. Proiektu honen oinarria auzo bakoitzean eragile ezberdinen arteko harreman-sare sendoak eraikitzea da, konfiantza eta elkarlanean oinarrituta.

Ekimena premisa sinple baina estrategiko batetik abiatzen da: egungo erronka sozialak, zahartzea, bakardadea edo zaurgarritasun egoerak, besteak beste, ezin direla ikuspegi bakar batetik eraginkortasunez lantzea. Horregatik, Erlauntzak diziplina, zerbitzu eta erakunde ezberdinetako profesionalak biltzen ditu auzo mailan, ikuspegi partekatua eraikitzeko eta egoera konplexuei erantzun koordinatuak emateko.

Horretarako, bi hilean behin egiten diren topaketetan parte hartzen dute, besteak beste, Gizarte Ekintza Saileko profesionalak, osasun-zentroetako ordezkariak, farmaziek, udaleko beste sail batzuek, kirol eta kultur ekipamenduetako arduradunek eta parte-hartze edo aisialdi arloko teknikariak. Sare honek auzoko baliabideak hobeto ezagutzeko, informazioa partekatzeko eta elkarrenganako konfiantza garatzeko aukera ematen du, zaintza-sistema formal eta informalak konektatuz.

Proiektuaren ardatza konfiantzazko harremanak dira: horietatik abiatuta, hainbat helburu lortzen dira, hala nola auzoaren ikuspegi partekatua eraikitzea, baliabideen ezagutza handitzea, profesionalen arteko lankidetzak sustatzea eta ekimen berriak sortzea. Horrela, auzoa bera zaintzaren espazio aktibo bihurtzen da, "Komunitateko pertsonen bizi kalitatea sustatu, mantendu edo berreskuratu" helburu komunarekin. (Erlauntzak, 2025)

5.4. Lkaleak

Lkaleak proiektua Egia auzoan garatutako ekimena da, pertsona nagusien zaintza eta laguntza oinarrituta, komunitatean dauden harreman-sare formal eta informalak indartzea eta berreraikitzea helburu duena. Bereziki, zaurgarritasun-egoeran dauden adineko pertsonen isolamendua murriztea eta haien gizarte-konexioa mantendu edo handitzea du xede.

Proiektu hau Donostia Lagunkoia hiri-planaren barruan kokatzen den esperimentazio-proiektu gisa ulertzen da, bizi-itzaropenaren hazkundeak dakartzaten erronkei erantzuteko modu berriak garatzeko.

Metodologikoki, proiektuaren ardatz nagusia gaur egun adineko pertsonen zaintzarako eta gizarte-loturak sostengatzeko sareak eraikitzeko garrantzitsuak diren elementuak identifikatzea da. Horretarako, auzo mailako errealitate konkretu bat hartzen da (Egia auzoa), eta bertan dauden praktika, balio eta harreman-dinamikak aztertzen dira, ondoren ikaskuntza sistematizatu eta beste testuinguru batzuetara transferitzeko aukera emanez. Gainera, prozesua gizarte-berrikuntzako ikuspegi batetik garatzen da, Diseinu Sozialaren printzipioetan oinarrituta, eta hiru fase nagusitan egituratzen da: diseinua, esku-hartzea eta sistematizazioa.

Lkaleak proiektuaren ezaugarri nagusietako bat, hiri mailan garatutako Komunitate Laguntza Sarearen esperientzia tokiko eskala batera eramatea da. Horrela, hiri-mailako ikuspegia eguneroko bizitzaren testuingurura egokitzen da, auzoan bertan gertatzen diren harremanak, konexioak eta baliabideak aktibatuz. Prozesuan bertan, adineko pertsonak, bereziki zaugarritasun edo bakardade egoeran daudenak, ez dira hartzaileak bakarrik, baizik eta proiektuaren erdigunean kokatzen diren eragile aktiboak, sorkuntza kolektiboko prozesuetan parte hartuz. Bestalde proiektu honetan beste proiektuekin elkarlaguntzan aritu da, aurretik aipatutako Erlauntza proiektua esate baterako, honek sareak zabaltzea eta auzoko eragile estrategikoak konektatzea eta ikaskuntza eta ebaluazio partekatuak sortzea ahalbidetu du.

Zaintzaren ikuspegitik, Lkaleak-ek ekarpen esanguratsua egiten du, hau da, zaintza ez da soilik zerbitzu publikoen bidez ematen den arreta, baizik eta eguneroko harremanetan, auzo-sareetan eta komunitatean bertan eraikitzen den dinamika kolektiboa da baizik. Horretarako, tokiko eragile desberdinak, elkarteak, zerbitzu publikoak, osasun-sistema edo auzokideak berak, sare bakarrean konektatzea bilatzen da, zaintza-ingurune integratu bat sortzeko. Halaber, proiektuak ikaskuntza sistematizatzeko borondatea du, etorkizunean beste auzo edo testuinguru batzuetan aplikatu ahal izateko, eredu transferigarri gisa. (Lkaleak, 2025)

5.5. Zaintzak Gertu

Zaintzak Gertu Donostiako Udalak bultzatutako proiektu pilotua da, etxean geratzea aukeratzen duten mendeko edo mendekotasun-arriskuan dauden pertsonentzat iraupen luzeko zaintza-eredu berri bat garatzea helburu duena. Ekimena Etxez Etxeko Zerbitzuaren (EEZ) testuinguruan kokatzen da, pertsonak beren ohiko ingurunean mantentzea lehenetsiz, instituzionalizazioaren alternatiba gisa.

Proiektuaren oinarria pertsonen zentratutako arretan dago, non zaintza ez den soilik zerbitzu estandarizatu bat, baizik eta pertsona bakoitzaren behar, nahi eta bizi-proiektuetara egokitutako esku-hartzea baizik. Horretarako, tokiko zaintza-ekosistemako eragile ezberdinen arteko lankidetzak sustatzen da, gune partekatuak sortuz hausnarketarako, eztabaidarako eta erabakiak hartzeko, eta bereziki etxeko laguntzaileek zaintza-prozesuan duten paper estrategikoa indartuz.

Bestalde, proiektuak garrantzi berezia ematen dio zaintzaile profesionalen gaitasunak hobetzeari. Horretarako, prestakuntza intentsiboko programa bat diseinatu eta ezarri da, non laguntzaileek ezagutza, trebetasun eta tresna berriak eskuratzen dituzten, kasu konplexuagoetan kalitatezko arreta emateko. Prestakuntza hau ere pertsonen zentratutako esku-hartzearen metodologian oinarritzen da.

Zaintzaren ikuspegitik, Zaintzak Gertu-k etxean ematen den zaintza indartzen du, formalaren eta informalaren arteko elkarlana aktibatuz, eta arreta-sistemaren eraldaketa batean kokatzen da, non helburua pertsonen autonomia, duintasuna eta bizi-kalitatea bermatzea den. Ondorioz, proiektua zaintza-eredu iraunkorrago eta komunitarioago baterantz egindako urrats gisa interpreta daiteke, non etxea bera zaintzaren espazio nagusi bihurtzen den. (Behatuz, 2025).

Aurten, Zaintzak Gertu proiektua etxeko laguntza zerbitzuaren kalitate – sistema indartzeko lanean ari da.

Ondorio nagusiak

Bildutako ebidentzia guztiek erakusten dute **zaintza-sistema eraldaketa sakon batean murgilduta dagoela**. Zerbitzuetan oinarritutako eredu instituzional eta zatikatutik, pixkanaka eredu komunitario, integratu eta pertsonengan zentratutako zaintza sistema batetara igarotzen ari gara. Trantsizio horrek eskubide subjektiboaren ikuspegia indartzen du, eta argi uzten du zaintzak ezin direla soilik familia-esparruaren barruan geratu: **zaintzak gizarte osoaren ardura partekatua dira**, eta horrek zaintza-esparru publiko sendo eta koherente bat eskatzen du.

Zaintza-sektorea, gainera, **sektore nabarmenki feminizatua** da, eta horrek, bestela ere kontuan hartu beharrekoa den genero-ikuspegia ezinbestekoa bihurtzen du gai honen inguruan egin beharreko edozein hausnarketa edo lanketan. Emakumeek historikoki hartu duten zama ikusezin eta ordaindu gabeko **zaintza-lana aitortu** eta birbanatzeko premia dago. Honi lotuta, **funtsezkoa bihurtzen da zaintzaileen zaintza** ere; merezi duten garrantzia eta errekonozimendua eman behar zaio lan honi. Profesionalen ongizatea, lan-baldintzak eta babes psikosoziala zaintza-sistemaren kalitatearen parte dira, eta ezin dira bigarren mailan utzi.

Zaintza ereduaren birpentsatzeak **eredu publiko-komunitariorantzko joera** hartu behar du, **desinstituzionalizazioa eta tokiko zerbitzuen indartzea** bultzatzen ditu, tokikoa eta partekatua den zaintza baten alde eginez.

20

Pertsonalizazioa arreta etxean eta ingurune hurbilean ematea lehenesten du, pertsonen autonomia eta bizi-proiektu indibidualak erdigunean jarriz. Horrek, bereziki, adineko pertsonen eta mendekotasuna dutenen bizi-kalitatea hobetzen du, baina baita gainerako kolektiboek ere, euren ingurune naturaletan esku-hartze prebentiboak indartuz.

Aldi berean, **koordinazio soziosanitarioaren beharra** gero eta handiagoa da. Eragile anitzen arteko lankidetzak —profesionalak, erakundeak, komunitatea— funtsezko bihurtu da arreta integratua eta jarraitua bermatzeko.

Prebentzio-ikuspegiak, era berean, mendekotasuna atzeratzea eta esku-hartze goiztiarra indartzea bilatzen du.

Komunitate-dimentsioak zaintza kultura berri bat sustatzen du, **baloreetan eta harremanetan oinarritutako arreta** erdigunean jarriz.

Joerak joera, zaintzaren gain, biztanleriaren egituraketak eragin handia du. Donostian, Gipuzkoan eta erkidegoan gertatzen de moduan, **biztanleriaren zahartze prozesu** bat ematen ari da: adineko biztanleria handituz doa, bizi itxaropena areagotzen ari da eta urte horiek ahalik eta modurik osasuntsuenean bizitzea lortu behar da (bizi kalitatea); bestalde, jaiotze-tasa baxua da eta, beraz, bi tendentziak batuta **hazkunde begetatibo negatiboa** da nagusi. Alabaina, bada **joera hau mantsotzen duen fenomeno bat: immigrazioa**. Kanpotik etortzen diren pertsonak, normalean, adin tarte gazte-helduan kokatzen dira. Horrek, batetik, lan egiteko adinean dagoen biztanleria handitzen du, bestetik, biztanleriaren piramidea apur bat orekatzen du eta, azkenik, kontuan hartu behar

da, seme-alabak izan ditzaketen adin tarteko pertsonak direla. Era berean, **migrazio-prozesuek dakartzaten erronkak** ere kontuan hartu beha dira: harrera, integrazioa, diskriminazioaren aurkako borroka... Horiek zaintza-sistemaren ikuspegi prebentibo-komunitarioarekin bat egiten dute, eta tokiko politikek erantzun inklusibo eta interkulturalak behar dituzte.

Testuinguru horretan, **Donostiak erronka handi bat du aurretik: zaintza balio publiko zentral gisa aitortzen duen, koherentzia ematen dion eta politika eta zerbitzu guztietan sistematikoki eta zeharka integratzen duen esparru estrategiko sendo bat garatu behar da.** Hala ere, **Donostiak baditu alde positibo sendoak:** komunitate aktiboa, auzo-sare biziak eta azken urteetan garatu diren proiektu berritzaileak, zaintza komunitarioaren aldeko oinarri sendoak eraikitzen ari direnak. **Erronka nagusia indargune horiek norabide komun eta egituratu bat izatea da, zaintza-sistema publiko-komunitario sendo eta eraldatzaile baten alde.**

00/

**ZAINTZEN DUEN
HIRIA ETA
BELAUNALDIEN
ARTEKOA**



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN



www.donostia.eus/donostiarra2040